

Perpaus ardatza duten euskal perpaus erlatiboak¹

Basque sentential relative clauses

Karlos Cid Abasolo*

Universidad Complutense de Madrid (UCM)

ABSTRACT: This paper aims to show that Basque relative clauses are less restricted than it is commonly claimed. One of the restrictions mentioned in the literature is that sentential relative clauses, which are possible in other languages (e.g. «She gave us the evening off, which was a bit of a surprise», «Nos dio la noche libre, lo que/lo cual fue una sorpresa», «Elle nous a donné une soirée libre, ce qui était un peu une surprise», etc.), are not an option in Basque. This article will demonstrate that such a restriction does not correspond to reality and will show what types of sentential relative clauses exist in that language.

KEYWORDS: Sentential relative clause; free relative clause; restriction; cataphora; anaphora.

LABURPENA: Artikulu honek erakutsi nahi du euskal perpaus erlatiboek ez dutela uste den adina murriztapen. Hauxe da aipatu izan diren haietako bat: euskaraz perpaus ardatza daukan perpaus erlatiborik ez dagoela, hots, beste hizkuntza batzuetan sentential relative clause delakoen bidez («She gave us the evening off, which was a bit of a surprise», «Nos dio la noche libre, lo que/lo cual fue una sorpresa», «Elle nous a donné une soirée libre, ce qui était un peu une surprise», etab.) adierazten dena ezin omen daitekeela euskaraz modu berean adieraz. Artikulu honek frogatuko du murriztapen hori ez datorrela bat errealitatearekin, baita agertuko ere zeintzuk diren perpaus bat ardatz duten euskal erlatibo motak.

HITZ GAKOAK: perpaus ardatza duen perpaus erlatiboa (PADPE); erlatibo librea; murriztapena; katafora; anafora.

¹ Nire esker ona Xabier Artiagoitiari, artikulu honi egindako ekarpenagatik. Baita Hiromi Yoshidari, japonierazko adibideak emateagatik.

Lan honetan, honako laburdura eta akronimo hauek erabili ditut: ERL = erlatibatzailea; KONP = konplementatzailea; OBJ = objektua; PADPE = perpaus ardatza duen perpaus erlatiboa; PL = proforma lexikoa; SOA = subjektua-objektua-aditza hitz-ordena; SUB = subjektua.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Karlos Cid Abasolo. Área de Estudios Vascos. Departamento de Lingüística, Estudios Árabes, Hebreos, Vascos y de Asia Oriental - Facultad de Filología, Edificio D, despacho 00.355.0. Universidad Complutense de Madrid. C/Profesor Aranguren, s/n. Ciudad Universitaria (28040 Madrid). – abasolo@ucm.es – <https://orcid.org/0000-0002-0080-0337>

Nola aipatu / How to cite: Cid Abasolo, Karlos (2025). «Perpaus ardatza duten euskal perpaus erlatiboak», ASJU, 59 (1), 161-175. (<https://doi.org/10.1387/asju.26878>).

Jasoa/Received: 2024-08-30; Onartua/Accepted: 2025-02-03. Online argitaratua / Published online: 2025-04-02.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomerziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

1. Sarrera

Perpaus erlatiboak euskal sintaxiaren ardatzetako bat dira. Izan ere, beste mendeko perpaus batzuen sorburu dira, hala nola *-eNEAN* eta *-eNETIK* denborazkoenak eta *-eN moduan* eta *-eN gisan* moduzkoenak, eta maiz landutako gaia.

Gehienetan, izen bat dute ardatz, euskal erlatibo arruntaren kasuan (*-eN* erlatiboaren kasuan, alegia) erlatiboaren atzean ageri ohi dena (hala izanik, erlatiboak erlazio kataforikoa du izen ardatzarekiko), eta *ZEIN* erlatiboaren kasuan, ordea, erlatiboaren aurrean (hala izanik, erlazio anaforikoa du harekiko). Ikus dezagun adibide bana:

- (1) *Bart ikusi dudak filmak asko aspertu nau*
- (2) *Bart film polit bat ikusi dut, zeinari buruz kritika bat idatziko dudak nire herriko aldizkarirako*

Lehenengo adibidean, perpaus erlatiboan isildutako izena (*ikusi dut* aditzaren objektu den *filma* izena) perpaus nagusiko *aspertu nau* aditzaren subjektu den *filmak* izen ardatzaren katafora da; bigarrenean, aldiz, *ZEIN* izenordain erlatibo perpaus nagusiko *ikusi dut* aditzaren objektu den *film polit bat* sintagma determinatzailearen anafora da.

Bada, hainbat hizkuntzatan (nik dakidala, bai behintzat eslaviar, germaniar eta erromanikoetan) ardatz hori perpaus bat ere izan daiteke, eta horrexegatik deitzen zaie ingelesez horrelako erlatiboak *sentential relative clauses*. Euskaraz, «perpaus ardatza duten perpaus erlatiboak» dei dakieke (aurrerantzean, PADPE akronimoa erabiliko dut).

Euskal PADPEen gaia oso gutxitan izan da jorratua orain arte. Hala ere, horrek ez du esan nahi interesgarria ez denik; aitzitik, landua ez izateak interesgarri bihurtzen du, are interesgarriago baldin eta kontuan hartzen bada zenbat idatzi eta argitaratu den euskal perpaus erlatiboen gainean.

PADPEei buruzko erreferentzia zaharrena 1972koa da, Rudolf Pieter Gerardus de Rijk euskalari handiarena, bere tesi aitzindarian ageri dena, bukaera eta labur-labur adierazita. Hori dela eta, beharrezkoa deritzot artikuluko hau tesiaren pasarte hori euskaratuz eta hona ekarri hasteari.

Azken ohar bat euskal perpaus erlatiboak buruz: ez dago PADPERik. (121) adibide ingelesezkoaren euskarazko baliokide egokia ez da (121)a, zeren ez baita gramatikala, baizik eta (121)b:

- (121) Jim called me a ***, which made me cry.
- (121)a *** deitu ninduen Xantik, negar eragin zidana.

Aipatu berri dudanez, PADPE hau ezinezkoa da euskaraz. Honako haxe soilik eduki dezakegu:

- (121)b *** deitu ninduen Xantik, onek negar eragin zidan.

Ingeles ez esanda: «Jim called me a ***, this made me cry».
Ez dakit zergatik diren euskaraz ezinezkoak (121)a bezalako perpausak.

Pasarte labur baina iradokitzaile horrek zenbait arrazoiengatik ematen du zer pentsatua:

— De Rijk baiezatzaten du euskaraz ez dagoela PADPERik.

- Argudio bakar bat ematen du (*-eNA* erlatibo librearen bidez osatutako PADPEak ez direla gramatikalak, alegia), ustezko agramatikaltasun hori arrazoitu gabe.
- PADPEak euskaraz ezinezkotzat jotzen dituenek, honako egitura sintaktiko hau proposatzen du beste hizkuntzen PADPEak euskaratzeko: alborakuntza, bigarren perpausean erakusle anaforiko bat jarrita (121b adibidean, *onek*), lehenengo perpausari (****deitu ninduen Xantik*) erreferentzia egiten diona edo, bestela esanda, lehenengo perpausarekiko anafora dena. Halako alborakuntzak (edo, emendiozko juntagailua erabiliz gero, emendiozko juntadurak)² maiz aurki ditzakegu ahozko zein idatzizko euskaran. Ondoko lau adibideak Bernardo Atxaga idazlearenak dira (Cid Abasolo 2008: 148):

- (3) *Neskaren agurra entzun bezain azkar bere pentsamendua entzun nuen, oso garbi, Paulorena berarena bezain garbi. Harritu egin ninduen horrek* (Atxaga 1985: 60)
- (4) *Ez zuen pentsu bankete harena konprenitzen, eta urduritasuna ematen zion horrek* (Atxaga 1991: 80)
- (5) *Behi makalen konpainia uzten dut, eta horrek desertura eramaten nau* (Atxaga 1991: 85)

Bestalde (Cid Abasolo 2008: 149), erakuslea kataforikoa ere izan daiteke, haren perpausa tartekietan edo parentesi artean jarrita (ahoz, eten baten bidez):

- (6) *Gizon hura argia iruditzen zitzaidan, berarekin konparatzeko modukoa edo —horrek ematen zion beldurrik haundiena— bera baino azkarragoa oraindik* (Atxaga 1985: 67)

Nire aburuz, egia da PADPEak ez direla maiz erabiltzen euskaraz (nolanahi ere, maila jasoan sarriagotan hizkera arruntean baino), baina hortik beraien existentzia ukatzera badago aldea.

Artikulu honen hurrengo ataletan honako eduki hauek landuko dira: lehenengo eta behin, de Rijken hasierako uste horren garapena aztertuko da (2. eta 3. atalak); jarraian, gramatikagintzan izan duen bilakaeraren berri emango da (4. atala); 5. eta 6. ataletan, gaur egungo literatura eta testu idatzian PADPE fenomenoak duen hedadura erkatuko dira; azkenik, ondorioak aletuko dira 7. atalean, zeinean, besteak beste, euskal PADPE moten behin-behineko zerrenda bat azalduko den.

2. De Rijken tesiaren argitaratzea

De Rijken tesia defentsa-egunetik mende laurden batera argitaratu zen (De Rijk 1998: 71-149). Artikulu honetako 1. atalean 1972ko jatorrizko bertsiotik euskaratutako pasarte 1998ko argitalpeneko 147. orrialdean ageri da, ukitu batzuk eginda. Honatx euskarazko itzulpena:

Azken ohar bat euskal perpaus erlatiboek buruz: ez dago PADPErik. (121) adibide ingelesezkoaren euskal baliokide egokia ez da (121)a, zeren ez baita gramatikala, bai-zik eta (121)b:

² De Rijken hautua ez da halabeharrezkoa; izan ere, artikulu honek aztergai dituen perpaus erlatibo berezi hauek ez-murrizgarriak dira (Brucart 1999: 412-413), eta erlatibo ez-murrizgarriak juntadurarekin erlaziona daitezke (Brucart 1999: 397).

- (121) Arantza called me a dummy, which made me cry.
 (121)a *Kaikua deitu ninduen Arantza'k, negar eragin zidana.
 (121)b Kaikua deitu ninduen Arantza'k, onek negar eragin zidan.

Ingelese esanda: «Arantza called me a dummy, this made me cry».

Japonierak, tamilerak eta turkierak, zeinak SOA hizkuntzak baitira, ez dute PADPERik onartzen. Beraz, susmatzen dut murriztapen hori SOA motako hizkuntza guztien ezaugarri orokorra dela.

Egia esan, de Rijkek euskaraz PADPERik ez dagoela baieztatzeke ematen dituen argudioak ez dira oso sendoak: «Deitu ninduen Xantik, negar eragin zidana» benetan agramatikala da? (4. atalean ikusiko dugu Oyharçabalek zalantzak dituela horren gainean, gramatikaltasuna bainoago onargarritasun kontzeptua erabiliz). Japonieraz, tamilez eta turkieraz ez dago PADPERik? De Rijkek ez du horri buruzko frogarik ematen. Bestalde, hizkuntza horiek SOA (subjektua-objektua-aditza) hizkuntzak badira ere eta PADPERik ez balute ere, hori ez litzateke arrazoi nahikoa izango euskarak PADPERik ez duela baieztatzeke. Izan ere, SOA motako hiru hizkuntzak ezaugarri tipologiko bat partekatzeak ez du zertan inplikatu munduko gainerako SOA hizkuntzek ere ezaugarri hori izatea. Usteak uste, ikertu beharko litzateke zer gertatzen den SOA hizkuntza guztiekin, kontuan hartuta horrelako hizkuntzak anitz direla, hainbestearino, non hitz-hurrenkera hori ohikoena baita munduko hizkuntzen artean.³

Ikus dezagun de Rijk zuzen ote dabilen japonierak PADPERik ez duela baieztatzean. «Kaikua deitu ninduen Arantza'k, onek negar eragin zidan» euskal perpaus elkartuaren parekoak dira japonierazko bi hauek:

- (7) *arantsa-ga watashi-o baka-to⁴ yonda, sore-ga watashi-o nakaseta*
 Arantza-SUB ni-OBJ kaiku- hori-SUB ni-OBJ negar eragin
 KONP (LEHEN) (LEHEN)
- (8) *arantsa-ga watashi-o baka-to yonda, [sono koto]-ga watashi-o nakaseta*
 Arantza-SUB ni-OBJ kaiku- deitu [hori-PL]-SUB ni-OBJ negar eragin
 KONP (LEHEN) (LEHEN)

Biak perpaus alboratuak dira: lehenengoan *sorega* erakuslea erabili da anafora gisa, eta bigarrenean *sono* erakuslea eta *koto* proforma lexikoa.

Hurrengo bi itzulpenak ere, zeinetan alborakuntzaren ordeztu perpaus erlatiboa duen menderakuntza erabili baita, onargarriak ez ezik, gramatikalak ere badira, zeinak ezeztatu egiten baitu de Rijk-en iritzia:

- (9) *arantsaga watashio bakato yonda-ϕ kotoga watashio nakaseta*
 deitu (LEHEN)-ERL PL
 «Kaikua deitu ninduen Arantzak, negar eragin zidan gauza»
- (10) *arantsaga watashio bakato yondaϕ sono kotoga watashio nakaseta*
 hori

³ Tomlin-en (1986) arabera hizkuntzen % 44,78 da SOA hurrenkerakoa; Dryer-en arabera (2013), berriz, % 40,98.

⁴ Euskal -(e)LAREN pareko konplementatzailea. Japonieraz, hainbat hizkuntzatan ez bezala, aditzari ez ezik, beste hitz mota batzuei ere lot dakieke (adibide honetan, *baka* adjektiboari).

Bietan perpaus erlatibo bana dago, eta ϕ da erlatibatzailea. (9) adibidean *kotoga* proforma lexikoa ageri da anafora gisa, eta (10) adibidean *sono* erakuslea eta *koto* proforma lexikoa.

Beraz, japonierak bederen baditu PADPEak.

3. De Rijken iritzi-aldaketa

De Rijkek (2008: 498) 19.3.3 ataltxo laburrean birplanteatzen du gaia, eta, bere tesian dioena errefusatzuz, euskal PADPEen hiru adibide ematen ditu, aditz erlatiboari atxikitako *BAIT*- aurritzkiaren bidez osatuak eta idazle banarenak:

- (11) *Garaitik hirirako bi zubiak ere behar dituzte zabaldu, ez baita goizegi izanen* (Hiriart Urruti 1995 [1891-1914]: 30)
- (12) *Hortakotz taularen gainean etzan nuk zenbeit egunez, ez baita batere goxo* (Etxepare 1980 [1910]: 30)
- (13) *Federiko enperadoreak ez zuen bere mendean ardorik edan, anitz baitzen aleman batentzat* (Axular 1976 [1643]: § 265)

4. Beñat Oyharçabalen ikuspuntua

Gaia hizpidera ekarri duten geroko argitalpen batzuek ere frogatu dute euskaraz badaudela PADPEak. Laburki komentatuko ditut ondoko lerroetan ikerketa lan horiek (Oyharçabal 2003; Euskaltzaindia 1999, 2021).

Oyharçabalek (2003: 815-816) azaltzen du *ZEIN* izenordain erlatiboaren bidez sor daitezkeela PADPEak. Dena den, testu zaharretara mugatzen du halako erabilera («this use is much difficult in present day Basque»; hots, askoz zailagoa, baina ez ezinezkoa). Horren erakusgarri ematen dituen bi adibideak xvii. mendekoak dira, idazle berarenak:

- (14) *Hartan emaiten baituzu aditzera, Iainko hura dela egiatia, eta gauza guztien berri dakiena, zein baita ohore handia Iainkoarentzat* (Axular 1976 [1643]: § 168)
- (15) *Zeren Iainkoa izendatuki, gezurraren aithor eta lekhuko ekhartzen baita: zein baita bekhatu handia eta itsusia* (Axular 1976 [1643]: § 170)

Bi adibideotan da perpaus erlatiboaren ardatz *ZEIN* izenordain erlatiboaren aurrean dagoen perpausa, bietan da *izan* aditza aditz erlatibo, eta bietan da absolutiboa kasu erlatibatua (*ZEIN* izenordainari atxikitako $-\emptyset$ marka).

Aitzitik, zalantzan jartzen du Oyharçabalek (2003: 807) PADPEak *-eNA* erlatibo librearen bidez adieraz daitezkeela, honela dioelarik: «For some speakers sentential relatives cannot be expressed by way of ordinary headless relatives. However, other speakers do accept such a use of headless relatives». Beste era batera esanda, perpaus aurrekari bat erlatibatzeko erabil daitezke ardatzik gabeko erlatibo arruntak (erlatibo arrunt libreak, zeinen aditzari atxikitzen baitzaizkio, hurrenez hurren, *-eN* erlatibatzailea, artikulua mugatzailea eta kasu absolutiboaren $-\emptyset$ marka), baina, Oyharçabalen ustetan, ez da estrategia emankorra hitzun guztientzat. Horren erakusgarri, honako

adibide hau ematen du, zalantzazkoa deritzona eta de Rijken tesiak ez-gramatikaltzat joko zukeena:

- (16) %Zozotzat hartzen nau, gustatzen ez zaidana

Nire ustez, ordea, ez da aski baieztatzea esapide bat onargarria dela hiztun batzuentzat eta ez dela onargarria beste batzuentzat: zehaztu beharko litzateke, gainera, zein hiztun motaz ari garen, zein aldaera diatopiko, diakroniko, diastratiko edo diafasikoz ari garen, eta, areago, honako hipotesi hau hartu beharko litzateke kontuan: esapide hori ontzat ematen duten hiztunen artean ba ote diren ontzat emate horretan Euskal Herriko bi erdarek eraginda daudenak. Dударик gabe, ez da hori guztia lan-tegi erraza.

Oyharçabalek 2003ko *A grammar of Basquen* ematen dituen argudio eta adibide berberak agertzen dira *Euskararen gramatika*n (Euskaltzaindia 2021: 1380) ere. Bestalde, de Rijk (2008) eta Oyharçabal (2003)ko adibide ugari *EGLU-Ven* (Euskaltzaindia 1999: 246-247) agertu ziren zenbait urte lehenago.

Euskal PADPE arrunt apositiboen onargarritasuna (baita, neurri batean, gramatikaltasuna ere?) zalantzan jartzen dute *EGLU-Vek*, Oyharçabalek (2003) eta *Euskararen gramatikak* (2021).

5. Aritz Galarraga, Axularren bidetik

Aurrena esana denez, de Rijkek euskal PADPEen existentzia ukatu zuen bere tesian, eta geroago iritziz aldatu, *BAIT*- aurrizki erlatibatzaileaz osatutako hiru adibide emanez (bide batez esanda, hirurak Ipar Euskal Herriko idazleenak,⁵ eta haietako bat ere ez XX. mendeko bigarren erditik aurrera bizi izandakoena). Bi datu horiez baldintzaturik egon liteke Oyharçabalen iritzi lehenago aipatua (2003: 815), hots, «in old texts the antecedent of relative pronouns could be whole clauses. This use is much more difficult in present day Basque». Alabaina, artikulua honetako 6. atalean erakutsiko da gaur egungo euskaraz badaudela horrelako erlatiboak. Bestalde, eta horrek balio estatistikorik ez badu ere, badago gaur egungo idazle bat (oraino ez dakit besterik ote dagoen) PADPEak osatzeko *ZEIN* izenordain erlatiboa baliatzen duena Axularrek baino ia lau mende geroago: Aritz Galarraga. Aztertu ditudan haren bi liburutan zenbait adibide topatu ditut hori egiaztatzen dutenak. Hona hemen haietariko batzuk:

- (17) *Gogoan dut 26 urterekin kendu zidatela gazte txartela (gertaera tragikoa, inondik ere). 30 urtera luzatu zuten gero (zeina injustizia bat den: bada ni baino lau urte gehiago izan dena gazte)* (Galarraga 2021: 88)
- (18) *Gogoan dut inoizko lorerik gogoangarriena: ikasi izan banu, kantatzen jakingo nukeela (zeinak esan nahi duen, ez bakarrik gaizki kantatzen dudala, baizik eta ondo kantatzeko aukerak betirako alde egin didala, orain ez bainaiz hasiko ikasten)* (Galarraga 2021: 93)

⁵ Axular Urdazubín (Nafarroa Garaia) jaioa bazen ere, zilegi izan bekit arrazoi ezagunengatik Iparaldekotzat jotzea.

- (19) *Gogoan dut momentu batean egin nahi izan nindutela, edo egin nahi izan nindutela uste izan nuela —zeina, niretzat behintzat, gauza berdintsua den—, nabarmentzen ari zen idazle baten oheburuko kritikari, edo antzeko zerbait* (Galarraga 2021: 116)
- (20) *Pozik nentorren zinematik, zeina ez den sarri gertatzen* (Galarraga 2022: 24)

Bi idazleon adibideen arteko ezberdintasunak bi dira: alde batetik, Axularrek mugagabean deklinatzen du izenordain erlatiboa eta Galarragak, aldiz, mugatu singularean (esan gabe doa bi aukerak gramatikalak direla); bestetik, Galarragaren (18) adibideko izenordain erlatibo anaforikoa, *esan nahi* aditz perifrasi iragankorren subjektua denez, kasu ergatiboan dago, eta, ordea, Axularren bi adibideetako izenordain erlatibo anaforiko bakar bat ere ez dago kasu horretan. Aitzitik, badago berdintasun bat: (14) eta (15) adibide *axulartarretan* eta (17), (19) eta (20) adibide *galarragatarretan* kasu absolutiboan ageri da izenordain erlatibo anaforikoa, *izan* aditzaren subjektu den aldetik. Beraz, erlatibo mota honen erabilera kasu absolutibora mugatzen da Axularren kasuan eta, salbuespenak salbuespen, Galarragarenean.

PADPEak osatzeko *ZEIN* izenordaina erabiltzeak badu alde oso on bat: potentzialitate handia duela, erlatibatutako kasua edo postposizio itsatsia agerian dagoelako, *-eN* erlatibo arruntean ez bezala.⁶ Hala ere, Galarragak (erlatibotasuna kasu absolutibora eta ergatibora mugatuz) eta Axularrek (erlatibotasuna kasu absolutibora mugatuz) ez dute potentzialitate hori ustiatzen.

Bestalde, erlatiboaren ardatza perpaus bat izan dadila nahi dugunean, hori oso garbi ez geratzearen arriskua dago, hots, enuntziatua entzun edo irakurri duenak *ZEIN* erlatiboaren erreferentzia ez identifikatzearena. Hain zuzen ere, litekeena da hartzaileak (dela entzuleak, dela irakurleak) uste izatea ardatza aurreko perpaus bat beharrean beste zerbait (izen bat) dela. Beste hizkuntza batzuetan (erromanikoetan eta eslaviarretan bederen), aldiz, halako arriskurik ez dago, zeren beraien PADPEek bai baitute ezberdintasun bat izen ardatza daukaten perpaus erlatiboekiko: erlatibatzailea, zeina genero neutroan ageri den: *ce qui* (frantsesez), *lo que / lo cual* (espainieraz), *il che* (italieraz), *o que* (portugesez), *což* (txekieraz), *co* (polonieraz), *kar* (eslovenieraz), *was* (alemanez), etab. Euskaraz, ordea, jakina denez, genero markarik ez dago oro har, ezta, zehazkiago, erlatibatzailea adierazteko moduan. Beraz, aipaturiko arriskua saihesteko, euskaraz PADPE bat osatu nahi dugunean, entzule edo irakurlearentzat oso garbi geratu behar du ardatza *ZEIN* izenordain erlatiboaren aurreko perpaus bat dela eta ez izen bat. Izan ere, edozein hizkuntzatan, anaforak eta kataforak (kasu honetan, anaforak) ezin baitira nahasgarriak izan erreferentzia identifikatze aldera.

Axularrez eta Galarragaz gain (eta, agian, beste idazle batzuez gain ere, azterketa sakon eta neketsua merezi duen gauza), erlatibo mota honek ez bide du tradizio handirik. Baina tradizio handirik ez duen zerbait tradiziozko bihur daiteke denboraren poderioz, areago tresna emankorra denean. Hori dela eta, eragozpenak eragozpen, uste dut aipaturiko abantaila balioetsi behar dela eta kasu absolutiboaz eta ergatiboaz haragoko erlatibakuntzak erabiltzeko aukera onartu, ondoko adibidee-

⁶ Jakina denez, horrexek azaltzen du *ZEIN* erlatiboaren erlatibagarritasuna *-eN* erlatiboarena baino handiagoa izatea.

tan (lehenengoa dokumentatua da eta beste laurak neronek sortuak) ikus daitekeen bezala:

- (21) *Hurbileko herrietako eta probintzia mugakideetako biztanleak etorri ziren, zeinaren ondorioz, Elizatearen bizitegi-ahalmena izugarri gainditu zuen populazio handia metatu zen* (Basauriko Udaletxea s. a.)
- (22) *Euskal Herrian gero eta euri gutxiago egiten du, zeinetik ezin den gauza onik espero*
- (23) *Diru funtsak, espekulatzeke asmoz, eraikin ugari erosten ari dira hiri erdialdeetan, zeinaren kontra udalek ez duten oraindik arau eraginkorrik ezarri*
- (24) *Donostiako udalak lau aparkaleku berri egitea baimendu du, zeinarekin ez dauden batere ados donostiar gehienak*
- (25) *Negu hasiera honetan ez du behin ere euririk egin, zeinari ez diodan batere traza onik hartzen*

6. PADPEek gaur egungo euskarari duten presentzia (uste den baino handiagoa)

Aurrena adierazitako zerbait orain harira datorrenez, errepika dezadan: de Rijke bere tesian euskal PADPEi buruz agertutako iritzia geroago aldatu zuen, Oyharçabalen ustearekin bat etorritik: euskaraz horrelako erlatiboak egon badaude (de Rijke *BAIT*- mota aipatzen du; Oyharçabalek, horrez gain, *ZEIN*). Oyharçabalek, berak eta de Rijke topatutako adibideetan oinarrituta, beste baieztapen bat egiten du, artikulua honetan jada aipatua: euskal PADPEak testu zaharretara mugatzen direla.

Bada, lehenengo usteak zuzena dirudi. Oyharçabalen bigarrenak, ordea, ez; izan ere, gaur egungo euskaraz ahoz eta idatziz erabiltzen baitira PADPEak, gutxienez, bi motatakoak.

6.1. Lehenengo mota: erlatibo libreak

Hona hemen gaur egun maiz erabiltzen den mota bat: erlatibo librea, egitura haxe duena:

adjektiboa + [izan aditza + *-eN* erlatibatzailea + artikulua mugatua + kasu absolutiboa]

Eta hona hemen adibide bat:

- (26) *Aita Donostia 8 hizkuntzatan dago (20 bisita eguneko), Ibon Sarasola 5 hizkuntzatan dago (5 bisita eguneko), eta harrigarria dena, Karlos Santamaria euskaraz eta frantsesez bakarrik dago* (Sarasola 2022)

Adibide horretan, *harrigarria dena* perpaus erlatibo librea *Karlos Santamaria euskaraz eta frantsesez bakarrik dago* perpaus ardatzaren katafora da. Ardatzaren atzean agertuz gero, ordea, anafora izango litzateke, aposatu gisa, baina bigarren egitura hau ez bide da hain ohikoa.

- (27) *Aita Donostia 8 hizkuntzatan dago (20 bisita eguneko), Ibon Sarasola 5 hizkuntzatan dago (5 bisita eguneko), eta Karlos Santamaria euskaraz eta frantsesez bakarrik dago, harrigarria dena*

Aurreko bi adibideak alderatuta, ikusten da erlazio kataforikoa dagoenean perpaus erlatiboaren aurrean *eta* emendiozko juntagailua paratzen dela, zeinak juntagailuaren aurreko perpausa eta [perpaus erlatibo librea + perpaus ardatza] egitura lotzen dituen.

Oyharçabalentzat, bai *eta*, itxuraz, Euskaltzaindiarentzat ere, perpaus ardatza erlatibo librearen aurrean agertuz gero, hau da, baldin *eta* erlatibo libreak perpaus ardatzarekiko erlazio anaforikoa badu, emaitza ez da hain onargarria. Nire ustez, ordea, bai (nahiz *eta*, lehenago esan bezala, erlazio kataforikoa bezain ohikoa ez izan), beti ere aditz erlatiboa *izan* aditza izaki,⁷ hurrengo adibidea erakusgarri:

- (28) *Bazekien gutxi gorabehera Barcelona inguruko zein tokitan zegoen. Eta Pascalek bazekien, askozaz ere okerragoa zena* (Atxaga 1993: 29)

Adibide horretan, *Pascalek bazekien* da *askozaz ere okerragoa zena* erlatibo librearen perpaus ardatza.

Aurkitu ditudan adibideetako PADPEetan, erlatibo librea perpaus ardatzaren katafora zein anafora izan, *oker* da, atributu gisa agertu ohi diren adjektiboen artean, maiztasun handienetakoa.

Atributu funtzioa duen adjektiboak gehiagotasun maila baldin badu, haren aurrean adberbio areagotzaile bat edo bi ager daitezke: *askozaz (ere)*, *askoz (ere)*, *are*.

Hiru ezaugarriok (honelako PADPEak atributuzkoak izatea, atributua *oker* adjektiboa izatea, eta adjektiboari *-ago* gehiagotasunezko atzizkia eranstea) batera ageri dira sarritan, erlatibo libreak perpaus ardatzarekiko erlazio kataforikoa dueneko hurrengo adibideak lekuko:

- (29) *Egoera arrazional batean izan behar ez lukeen samin bat da, trabak jartzen, eta, okerragoa dena: nolabaiteko lotsa sentiarazten* (Malagon 2023: 18)
- (30) *Sinetsi nahi ez dugun arren, ukaezina da klima-aldaketa jasaten hasi garela. Eta okerragoa dena, adituek iragartzen zutena baino lehenago heldu eta azkarrago okerragotzen ari dela* (Gracia 2024)
- (31) *Batez ere, ez dakit zertarako, eta okerragoa dena, ez dakit norentzat hartu dudan berez ez dagokidan lan nekez ikaragarri hau* (Etxeberria 1999)
- (32) *Eta zergatik Euskal Herrian bai eta beste inon ez? Bi arrazoibide ematen dira: alergia abiatzeko polen asko behar da —munduko maila gorenak hemen neurtu dira— eta, okerragoa dena, Japonian zedroen polenarekin baieztatu duten eran, errepide aldamenetan, diesela erretzerakoan sortzen diren partikula kutsatzaileekin nahasita eragina areagotu egiten da* (Errekondo 2008: 47)

Erlazio kataforikoa dagoenean, *eta* emendiozko juntagailua ez da perpaus erlatiboaren aurrean ager daitekeen juntagailu bakarra; izan ere, *edo* hautakaria ere azal baitaiteke.

- (33) *Saiakeraren unibertsoa den puzzle ikaragarri horretan ere, lantzean behin norbaitek jartzen du han-hemen piezaren bat, ia beti aurreko pieza jarri zuten le-*

⁷ Hala diot zeren topatu ditudan adibide guztiak halakoxeak baitira, baina corpusak miatuz ikertu beharko litzateke ea beste aditz batzuekin ere zilegi den *eta* nolako ezaugarriak izan beharko litzuketen aditz horiek. Oyharçabalen (16) adibideari dagokionez (*Zozotzat hartzen nau, gustatzen ez zaidana*), esan behar dut kontsulta egin didan hainbat informatzailek ontzat eman dutela.

kutik aparte antzean (edo okerragoa dena: aurreko piezaren gainean) (Cano 1997: 116)

- (34) *Kultura korporatiboarena hotzikarak eragiten dituen soziopatía moduko bat besterik ez da suertatu azkenean, non bilera batean ideia bat ontzat ematen den, auskalo nola, auskalo zergatik, agian ez delako inor eskua altxatu eta terriblea dela esatera ausartu, agian ez delako inor jaramonik egiten ari edo okerragoa dena, agian ez zaiolako inori ideia hori hain terriblea iruditu* (Malagon 2024: 17)

Honelako egituretan, *okerragoren* antonimoa (hots, *on* adjektiboa modu konparatiboan) ere erabiltzen da askotan.

- (35) *Ez gaude dogmen garaian, jendea gero eta kultuagoa delako eta, are hobea dena, gero eta anitzagoa delako* (Alvarez 2004)

Bestalde, bitxia da (29)-(35) adibideetan perpaus erlatiboaren puntuazio zeinuen aukera ugaritasuna, edo, bestela esanda, idazleen irizpide-batasun falta kontu horretan:

- Juntagailuaren aurrean koma edo puntua agertu, edo ez bata ez bestea.
- Juntagailuaren atzean koma agertu edo ez.
- Erlatibo librearen atzean koma edo bi puntu (lehenengo aukera askoz ohikoa da, baina, nire ustez, bigarrena —Malagonen (29) adibidekoa— zuzenagoa, puntuazio-zeinuaren atzetik datorrena erlatibo librearen azalpena delako).
- Egitura osoa (juntagailutik perpaus ardatzera) parentesi artean jartzea, hala nola Canoren (33) adibidean.

Zorionez, ahoz ez dugu halako buruhausterik, etena eten baita, eta ez besterik.

Aipatutakoez gain, ager daitezkeen adjektiboen zerrenda ez bide da oso zabala, eta gehienak «on» eta «txar» mutur semantikoen artean banatzen dira. Hona hemen zerrenda horretako beste hiru:

- (36) *Zenbait egunetan zehar Donostia esatearekin batera, zinea, artistak, izarrak datozkigu burura edo guretzat onuragarriagoa dena, zinea, artistak, izarrak eta abarrak komunikabideetan lehentasuna hartzean Donostia agertzen da fondo gisa* (Narvaez 2002)
- (37) *Nora joan ote dira alde zaharrera bideratu behar ziren diru horiek, eta kaltegarriagoa dena, ze eragin etsigarri izan ote duen auzotarrek birgaitze berrietara sartzeko zuten asmoetan* (Hiripublika 2013)
- (38) *Izan ere, auto eta makina batzuen gurpilak zulatu dira, koadro elektrikoak manipulatu dira... Eta are larriagoa dena, lanean jarraitzeko eskubidea erabili duten langileen kontrako larderia erabili da* (Gipuzkoako Foru Aldundia 2016)

Bestalde, adjektiboak ez du zertan agertu, atzizki konparatiboa *are* adberbioari atxikiz.

- (39) *Esate baterako, bizi garen estatu honetan badira gaztelania erabiltzea bultzatzeko eta, areago dena, lehenesteko 500 lege baino gehiago; euskara erabiltzea bultzatzeko eta, are, lehenesteko, berriz, apur batzuk baino ez dauzkagu* (Azkoitia Guka 2012)

Adjektiboaz gain, beste atributu mota batzuk ere erabil daitezke erlatibo hauetan, hala nola [aditz izena + *-KO* atzizki eratorlea + artikulua mugatua + kasu absolutiboa]. Egitura hori, jakina denez, *-garri* atzizkiak osatutako adjektiboen baliokidea da. Adiskide batek igorritako e-mail batetik ateratakoa da ondoko adibidea:

- (40) *Gustura irakurri dut zeuk bidalitakoa eta pentsatzera eta detektibe lana egitera behartu nau, eskertzekoa dena*

Bestalde, PADPEak sortzeko tresna emankorra da *bistan da* esamoldea perpaus libre bihurtzea. Jakina denez, gehien bat Iparraldeko euskaran erabiltzen da erlatibo hori, testu antolatzaile baten funtzioa betetzen duen onarpen edo ziurtasun adiera hartuz, honako hauen pareko: *Ez dago dudarik...*, *Seguruenik*, *Ziur aski*, *Zer esanik ez*, *Egia da...* *-(e)la*, *Dudarik gabe*, *Zalantzarik gabe*, *Argi dago...* *-(e)la*, *Bistan da...* *-(e)la*, *Beharrezkoa da garbi uztea*, *noskiljakina*.

Hurrengo adibidean, *bistan dena* perpaus erlatibo aposatua, zeinaren ardatza aurreko bi perpaus helburuzkoak osatutako emendiozko perpausa den, horrexen anafora da.

- (41) *Zergatik da garrantzitsua herri hezitzaileen sarea sustatzea? / Elkarri laguntzeko eta elkarrengandik ikasteko, bistan dena* (UEU 2024)⁸

Erlatibo librerik gabe ere osa daiteke perpaus aposatua, zentzu bertsuarekin.

- (42) *Elkarri laguntzeko eta elkarrengandik ikasteko, bistan da*
(43) *Eta aldaketa honetan gizonezkoak dira galtzaile, gizonezkoak gara. Guztiok irabazle izateko, bistan da* (Galarraga 2022: 148)

Erlatibo librea kataforikoa ere izan daiteke, aurrean *eta* emendiozko juntagailua agertzen zaiolarik, juntagailuaren aurreko perpausa eta [perpaus erlatibo librea + perpaus ardatza] egitura lotzen dituen.

- (44) *Bai, pentsa ezazu, 1988an, nik 20 urte nituen, justu Rock Radical Vasco deitzen den mugimendu hori sortzen ari zelarik. Hori entzuteko adinean ginen, eta bistan dena, horretan murgildu ginen osoki* (Sarriugarte 2019: 13)⁹
(45) *Garai batean entzierroaren lasterrak arrazoi bakarra zuen: egunero kanpotik plazaraino zezenak ekarri beharra. Kamioirik ez izan orduan eta bistan dena, kalean barrena ekarri behar* (Wikipedia contributors 2022)

Bestalde, fosildurik ager daiteke, bakarrik, testu antolatzaile gisa, *noski*, *jakina* edo *prefosta*-ren pareko.

- (46) *évidemment! cette question! ou quelle question!*
bistan dena! haxe da galde bitxia! – prefosta! Hori da galto bitxia! (Nola Erran, s.v. question)

Azpiatal hau amaitzeko, galdera garrantzitsu bat: zergatik ezin da perpaus erlatibo arunt bat (hots, ezker-adarkatze gisa eratutakoa) PADPE izan? Nire ustez, merezi du

⁸ Udako Euskal Unibertsitateko web atarian Nora Salbotxi egindako elkarrizketa batean Salbotxek erantzunetako batean esandakoa da hau.

⁹ Danele Sarriugartek *Argia* aldizkarian Paxkal Indori egindako elkarrizketa batean Indok emanikako erantzunetako batean esandakoa da hau.

sakonki aztertzea zergatik ez den gramatikala, demagun, **askorentzat harrigarria den gaur egun Finlandian bizi naiz* (ezker-adarkatze gisa eraturako perpaus erlatiboa), eta bai, ostera, *gaur egun Finlandian bizi naiz, askorentzat harrigarria dena* (eskuin-adarkatze gisa eraturako perpaus erlatibo librea). Gaztelaniari dagokiolarik, eta artikulu honetan gorago aipatu denez, Brucart-ek (1999: 412-413) dio ardatza (beti aurrekaria gaztelaniaren kasuan) perpausa denean erlatiboa beti dela ez-murritzgarria, eta horrek agian zerikusia izan lezake euskaraz erabiltzen den estrategiarekin (perpausak ezin dira ondo identifikatu perpaus erlatiboaren barruan hutsune batekin).

6.2. Bigarren mota: proforma lexikoa ardatz duten perpaus erlatibo arruntak

Badu gaur egungo euskarak beste PADPE mota bat, gaztelaniatiko kalkoa dena edo, behintzat, dirudiena, baina, nire aburuz, halakoa balitz ere errefusatu beharko ez litzatekeena: perpaus erlatibo arrunta, atze-atzean proforma lexiko diren *gauza*, *arazo* edo antzeko izen ardatz bat duena. Proforma lexikoek perpaus ardatzaren anafora gisa funtzionatzen dute. Erlatibo hauek aposatuak dira. Honatx egitura:

perpaus ardatza + perpaus erlatibo arrunta + izen ardatz den proforma lexikoa

Eta hona hemen zenbait adibide (Cid Abasolo 2008: 148), denak idazle berarenak:

- (47) *Jakina, hamabost urtez mutiko guztiek arbuiatzen dute amaren laguntza, gerora gertatzen ez den gauza, noski* (Atxaga 1978: 19)
- (48) *Anitz lagunak, behintzat, hori esaten zidaten lantokira hurbiltzen nintzen bakoitzean; azken aldian oso gutxitan gertatzen zen arazoa, bestalde* (Atxaga 1978: 61)
- (49) *Hori esan eta pudding txokolatetzkoa kentzen dit aurretik, bere aitaren kontuak bakean uzten dizkiodanean egiten ez duen gauza* (Atxaga 1984: 17)
- (50) *La Vacheri baso usaina antzematen zitzaion, behi batek oso gutxitan izaten duen gauza* (Atxaga 1991: 56)

Honelako PADPEetan ez dago murritzapenik aditz erlatiboari dagokionez. Proforma lexikoak, ordea, murritzapen estua du: kasu absolutiboan agertzen da beti.

7. Ondorioak

Ez dago dudarik de Rijken tesia aitzindaria izan zela euskal sintaxiaren ikerkuntzan, eta aitzindaria izateak justifikatzen dituela tesi horren zenbait hutsune, hala nola baieztatzea PADPEak ez direla euskaraz posible. Gerora tesia *ASJU*n argitaratu zenean, bere horretan geratu zen murritzapen hori, euskararen SOA izaerari egotzita. Azalpen hori zalantzan jartzen du artikulu honek, zenbait argudio emanez.

PADPEei buruz lan honetan aipatzen diren gainerako erreferentziek (*EGLU-V*; Oyharçabal 2003; Euskaltzaindia 2021; de Rijk 2008) ezeztatzen dute murritzapen horren hipotesia zenbait adibideren bidez. Lehenengo hiru lanetan PADPEez esaten direnak oso-oso antzekoak dira eta, bigarren eta hirugarrenean, Oyharçabalek hartu zuen parte egile zuzentzat (eta pentsatzekoa da *EGLU-V*en ere hartu zuela parte). Laugarrena de Rijkena da, non aldatu zuen ordura arteko iritzia. Horretarako,

EGLU-Ven oinarritu zen liburuki horretako bi adibide errepikatuz eta beste bat erantsita.

Artikulu honek egiaztatu duenez, euskal PADPEei dagokielerik badaude mota bat baino gehiago, onargarriak ez ezik, gramatikalak ere badirenak:

- Erlatibo libreak (atributu gisa funtzionatzen duen adjektiboa + [*izan* aditza¹⁰ + *-en* erlatibatzailea + artikulua mugatua + kasu absolutiboa]), perpaus nagusia-
rekiko erlazio anaforikoan edo kataforikoan. Ikerkizun dago litekeena ote den
izan ez beste aditz batzuekin erabiltzea (zehazkiago esanda, onargarria / grama-
tikala / dokumentatua).
- *BAIT*- erlatibatzailea, Oyharçabalek Axularren bi adibidetan oinarrituta egiaz-
tatu bezala. Dudarik gabe, datu eta ikerlan gehiago behar dira puntu honetaz.
- *ZEIN*. Nahiz eta printzipioz murriztapenik ez duen erlatiba daitezkeen ka-
suei edo posposizio itsatsiei dagokienez eta edozein aditzekin erabil daitezkeen,
errealitatea da Axularrek —Oyharçabalek topatutako bi adibideetan— eta
Galarragak —nik aurkitutako lau adibideetatik hirutan— kasu absolutiboan
erabiltzen dutela, *izan* aditzaren subjektu gisa. Hala ere, kasu absolutiboaz
harago, izenordain erlatibo hau aurreiritzi puristarik gabeko hiztun eta idaz-
leentzat potentzialitate handiko baliabide eraginkorra izan daiteke PADPEak
osatzeke euskara jasoan, (21)-(25) adibideetan ikus daitekeenez. Bestalde, bi-
laketa-lan handia egin behar da jakiteko ea Axular eta Galarragak gain beste
idazleren batek edo batzuek erabili edota erabiltzen duten *ZEIN* izenordaina
honelako perpaus erlatiboak egiteko eta erabilera hori nolakoa den (kasu abso-
lutibora mugatzen den ala ez).
- Erlatibo arrunta + proforma lexikoa, hala nola *gauza* edo *arazo*. Proforma le-
xikoa, zeinak estrukturaliki perpaus erlatiboaren izen ardatz gisa funtziona-
tzen duen, aurrena aipatutako perpaus baten anafora da, eta kasu absolutiboan
agertzen da beti. Halaber, aditz erlatiboari dagokionez, ez dago murriztapenik.
PADPE mota hau gaztelaniatiko kalkoa bide da, baina kontuan hartu behar
dugu beste hizkuntza batzuetan ere erabiltzen dela, japonieran bederen, (9) eta
(10) adibideetan ikusi dugunez.

Laburbilduz, artikulu honetan aztertu diren lau euskal PADPE moten inguruan
askoz gehiago dago oraindik ikertzeko, eta, bestalde, ikuskizun dago mota horiez gain
besterik ote dagoen. Izan ere, euskal perpaus erlatiboen inguruan gutxien aztertu di-
ren gaietako da hau. Alabaina, argi dago honelako perpaus erlatiboek euskaran duten
presentzia uste den baino handiagoa dela eta are handiagoa izan daitekeela.

8. Bibliografia

Brucart, José María. 1999. La estructura del sintagma nominal: las oraciones de relativo. In
Ignacio Bosque & Violeta Demonte (arg.), *Gramática descriptiva de la lengua española 1*.
Sintaxis básica de las clases de palabras, 395-522. Madril: Espasa.

¹⁰ Hortaz, ulergarria da Oyharçabalek gramatikaltasunaz edo onargarritasunaz zalantzak izatea beste
aditz batzuekin erabiltzen bada, hala nola *gustatu* aditzarekin.

- Cid Abasolo, Karlos. 2008. Gramatika Atxagaren literatur bideetan. In Xabier Artiagoitia & Joseba A. Lakarra (arg.), *Gramatika jaietan. Patxi Goenagaren omenez (ASJUren gehigarriak 51)*, 173-194. Bilbo: UPV/EHU.
- Dryer, Matthew S. 2013. Order of subject, object and verb. In Matthew S. Dryer & Martin Haspelmath (arg.), *WALS online (v2020.4)*. <https://wals.info/chapter/81>.
- EGLU-V = Euskaltzaindia. 1999. *Euskal gramatika. Lehen urratsak V*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. 2021. *Euskararen gramatika*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Oyharçabal, Beñat. 2003. Relatives. In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*, 762-822. Berlin: De Gruyter Mouton.
- Rijk, Rudolf P. G. de. 1972. *Studies in Basque syntax: Relative clauses*. Cambridge, Mass.: MITeko doktorego-tesia.
- Rijk, Rudolf P. G. de. 1998. *De lingua uasconum. Selected writings (ASJUren gehigarriak 43)*. Bilbo: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU.
- Rijk, Rudolf P. G. de. 2008. *Standard Basque: A progressive grammar*. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- Tomlin, Russell. 1986. *Basic word order: Functional principles*. Londres: Croom Helm.

9. Adibideen erreferenziak

9.1. Literatura adibideen erreferentziak

- Atxaga, Bernardo. 1978. *Etiopia*. [s. l.]: Pott liburutegia.
- Atxaga, Bernardo. 1984. *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian*. Donostia: Erein.
- Atxaga, Bernardo. 1985. *Bi anai*. Donostia: Erein.
- Atxaga, Bernardo. 1991. *Behi euskaldun baten memoriak*. Iruñea: Pamiela.
- Atxaga, Bernardo. 1993. *Gizona bere bakardadean*. Iruñea: Pamiela.
- Axular, Pedro. 1976 [1643]. *Gero*. Arantzazu: Jakin (Luis Villasanteren argit.).
- Etxeberria, Hasier. 1999. *Arrainak ura baino*. Donostia: Elkar. <https://armiarma.eus/gordailua/EtxeberriaHArrainakUraBaino.htm>.
- Etxepare, Jean. 1980 [1910]. *Buruxkak*. Donostia: Elkar.
- Galarraga, Aritz. 2021. *Gogoan dut*. Iruñea: Pamiela.
- Galarraga, Aritz. 2022. *Humanitatearen une gorenak*. Irun: Alberdania.
- Hiriart Urruti, Jean. 1995 [1891-1914]. *Gontzetarik jalgiaziak*. Donostia: Euskal Editoreen Elkarte (Iñaki Caminoren argit.).

9.2. Egunkari eta aldizkarien erreferentziak

- Alvarez, Imanol. 2004. Laikotasuna versus laizismoa? *Argia* 2004-11-07.
- Cano, Harkaitz. 1997. Literatura. *Jakin* 99. 113-118.
- Errekondo, Jakoba. 2008. Pinua eta errepidea. *Argia* 2008-02-24.
- Malagon, Ana. 2023. Samin izeba. *Berria* 2023-09-21.
- Malagon, Ana. 2024. Kultura korporatiboa. *Berria* 2024-05-30.
- Sarriugarte, Danele. 2019. Paxkal Indo, autodidakta nekaezina: «Hautetsi guztiek babesten dute Seaska, borroka hori irabazia dugu». *Argia* 2019-03-24.

9.3. Web atarietako adibideen erreferentziak

- Azkoitia Guka. 2012. Udaberria joera berriekin. *Azkoitia Guka* [online, 2012-03-22]. <https://azkoitiaguka.eus/azkoitia/1425553981103-udaberria-joera-berriekin>.
- Basauriko Udala. s. a. Landa doktoreak, udal-medikuak 1852tik 1930era. *Basauri* [online]. <https://www.basauri.eus/eu/pertsona-ospetsua/landa-doktoreak-udal-medikuak-1852tik-1930era>.
- Gipuzkoako Foru Aldundia. 2016. Aldundiak gutxieneko zerbitzuak betetzea eskatzen du, mantenimenduko grebak irauten duen bitartean segurtasun arazoak saihesteko. *Gipuzkoa* [online, 2016-05-04]. <https://www.gipuzkoa.eus/eu/-/aldundiak-gutxieneko-zerbitzuak-betetzea-eskatzen-du-mantenimenduko-grebak-irauten-duen-bitartean-segurtasun-arazoak-saihesteko>.
- Gracia, Izaskun. 2024. Gizakia eta bere zozokeria. *Uberan* [blog, 2024-03-21]. Donostia: Euskal Idazleen Elkarte. <https://idazleak.eus/eu/uberan/gizakia-eta-bere-zozokeria>.
- Hiripublika. 2013. Euskal Hirian ezbeharrak: Bermeoko Alde Zaharreko sutearen aurrekariak. *Hiripublika* [blog, 2013-04-24]. <https://www.unibertsitatea.net/blogak/hiripublika/2013/04/24/euskal-hirian-ezbeharrak-bermeoko-alde-zaharreko-sutearen-aurrekariak/>.
- Narvaez, Manu. 2002. Zinemaldiaren balioa. *Euskonews* 180. <https://www.euskonews.eus/zbk/180/zinemaldiaren-balioa/ar-0180001005E/>.
- Nola Erran = Euskararen Erakunde Publikoa. s. a. *Nola Erran. Frantses-euskara hiztegi elektronikoa*. <https://www.nolaerran.org>.
- Sarasola, Kepa. 2022. Zenbat aldiz bisitatzen da Txillardegiaren artikulua? (Pageviews). *Euskal Wikilarien Kultur Elkarte* [blog, 2022-01-10]. <https://wikimedia.eus/tag/wikipediako-tresnak/>.
- UEU. 2024. Nora Salbotx Alegria: «Ezagutza modu kolektibo eta kolaboratiboan eraikitzen da». *UEU* [online, 2024-06-26]. <https://www.ueu.eus/komunikazioa/albisteak/nora-salbotx-alegria>.
- Wikipedia contributors. 2022. Entzierro. *Wikipedia, Entziklopedia askea* [online, 2022-07-06]. <https://eu.wikipedia.org/wiki/Entzierro>.